



sidrerías sidra guipuzcoa gipuzkoa

II. Sagardo dastatze komentatua ostiralean Oreretako Udaletxean

24-04-2013 | Gipuzkoako Sagardogileen Elkartea

Oreretako Sagardo Eguneko antolatzaileek eta Gipuzkoako Sagardogileen Elkartek antolatua da dastatze komentatua eta Juan Zuriarrain enologoak gidatuko du. Arratsaldeko 7etan Udaletxean.

Datorren ostiralean, apirilak 26, II. Sagardo Dastatzea komentatua izango da Oreretako Udaletxean, arratsaldeko 7etatik aurrera. Sagardo Egunaren antolatzaileek eta Gipuzkoako Sagardogileen Elkartek elkarlanean antolatuko ekitaldia izango da, eta Juan Zuriarrain enologoak gidatuko du. Oreretako sagardo egunaren bueltan antolatutako ekitaldien barruan kokatzen da ostiraleko dastatzea eta iaz bezala Udaletxeko areto nagusian egingo da. Oreretako herriatarrek nahiz kanpotik inguratu nahi dutenek sagardoa ondo ezagutzeko aukera ematea da dastatze komentatuaren helburua eta horretarako sagardogintzan ibilbide luzea duen Juan Zuriarrainen laguntza izango dute bertaratzen direnek. Gipuzkoako Sagardogileen Elkartek horrelako dastatzeak eskaintze ditu herriz herri, jendeak produktua hobeto ezagutu eta baloratzeko aukerak eskaintzeko. Oreretakoa bigarren urtez egingo da.

Eta larunbatean izango da Sagardo Eguna, urteroko moduan sagardo aukera handiarekin. Beraz, sagardoa dastatu nahi duenak aukera ezin hobe du ostiral eta larunbatean Oreretan.